

**124 UDALETXEK GAINBEHERA ETORRITAKO HIRI-ZONALDEAK
BERPIZTEKO "IZARTU II" EGITARAUAN PARTE HARTZEKO
ESKAERA AURKEZTU DUTE**

EAEEn dauden ehuneko 50a dira eta guztira **598 milioi** euroko diru laguntza eskatu dute, nahiz eta egitaraua garatzeko aurrekontu zuzkidura **109 milioi** eurokoa izango den

IZARTU, Gainbehera etorritako Hiri-zonaldeak Berpizteko Egitarauaren bigarren deialdian parte hartzeko epea amaitu da, eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak deiarren arrakasta azpimarratzen du. **124 udaletxek** (EAEko ehuneko 50) diru-laguntzak eskatu dizkiote Eusko Jaurlaritzari, hiri eta herrietako gainbehera etorritako zonaldeak berpizteko **1.173 milioi** euroko inbertsioa aurreikusten dute eta guztira **598 milioi** euroko diru laguntza eskatu dute, nahiz eta egitaraua honen aurrekontu zuzkidura **109 milioi** eurokoa den.

Eskatutako diru laguntzaren zenbatekoa ikusirik, diru-laguntzak baldintza objektiboen arabera emango direla gogorarazten du Ogasun Sailak, indarrean dagoen araudiak gainbehera etorritako zonaldeak zehazteko ezartzen dituen ezaugarri eta baldintzen arabera, alegia. Espedienteak jasoko dituen Erabakia 2004ko uztailaren 22a baino lehen kaleratu beharko da.

41 udalek eskaera errepikatu, eta Gasteizko udalak lehenengo aldiz

Guztira EAEko Hiru Lurraldeetatik 124 eskaera iritsi dira, 2001eko deialdian jasotako eskaeren kopurua bikoiztuz. Honela, IZARTU I deialdian 58 udaletxek egin zuten eskaera, baina onartuak 48 udaletxe izan ziren zegozkien 51 proiektu garatu zituztenak.

Oraingoan, udaletxe bizkaitar guztien %58-rekin eta gipuzkoarren %53arekin batera, bigarren deialdian Arabako udaletxeen %25ak agertu du parte hartzeko nahia. 13 Araban, 64 Bizkaian eta 47 Gipuzkoan.

ARABA

Alegría-Dulantzi, Amurrio, Arraia Maeztu, Asparrena, Barrundia, Bernedo, Campezo/Kanpezu, Lanciego/Lantziego, Lantaron, Ribera Baja/Erribera-Beitia, Salvatierra/Agurain, Urizaharra eta Vitoria-Gasteiz.

BIZKAIA

Abadiño, Abanto Zierbena, Amorebieta-Etxano, Amoroto, Arantzazu, Areatza, Arrigorriaga, Artea, Artzentales, Atxondo, Aulesti, Bakio, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Bermeo, Berriz, Bilbo, Busturia, Derio, Durango, Ea, Elorrio, Erandio, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Galdames, Garai, Gernika, Getxo, Gizaburuaga, Gordexola, Gorniz, Güeñes, Igorre, Ispaster, Iurreta, Karrantza, Larrabetzu, Leioa, Lekeitio, Lemoiz, Lezama, Loiu, Mallabia, Markina, Mendata, Mendexa, Mungia, Munitibar, Orozko, Otxandio, Portugalete, Sestao, Sopuerta, Trapaga, Turtzioz, Ugao, Urduliz, Zalla, Zeanuri, Zeberio eta Zierbena

GIPUZKOA

Aia, Andoain, Anoeta, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Asteasu, Astigarraga, Ataun, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Bergara, Deba, Donostia, Elgoibar, Elgeta, Errezil, Eskoriatza, Erreterria, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Idiazabal, Irún, Lasarte-Oria, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Lezo, Mutiloa, Mutriku, Oiartzun, Ordizia, Orío, Pasaia, Segura, Soraluze, Tolosa, Urretxu, Usurbil, Villabona, Zaldibia, Zarautz, Zegama, Zerain eta Zumaia

Lehenengo deialdian ez bezala, Gasteizko Udalak proiekturik aurkeztu ez zuenean, oraingoan hiru hiriburuek, Bilbo, Donostia eta Gasteiz, proiektua aurkeztu eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak lortu ahal izateko eskaera egin dute.

Ahalegin finantzarioa, konpromisoa eta solidaritatea

Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailak izan den partehartze ugaria azpimarratzen du eta udal-erakundeak zorientzen ditu, gauzatzera prest egongo liratekeen ahalegin finantzarioa, 1.173 milioi eurokoa alegia, oso garrantzitsua baita.

Inbertsio honi aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzari guztira eskatu zaion diru laguntza 598 milioi eurokoa izan da, nahiz eta IZARTU II egitarauari dagokion aurrekontu zuzkidura 109 milioi eurokoa den.

Dena den, udaletxeek aurkeztutako eskakizun ugariak, euskal administrazioaren udal-garapenaren politikaren tresnak udal erakundeen artean izan duen harrera ona eta preziatua nabarmentzen dute. Politika honen oinarria udaletxe eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harreman zuzenean aurkitzen da, azpimarratzeko ezaugarria, kontutan badugu Estatuan berezitasun hau duen politika bakarra dela jakin denean, eta Europatik datorren oinarri filosofikoari erantzuten diola, non garapen global eta orokorrean tokikoak garrantzi oso handia hartzen duen.

Bestalde, toki-garapeneko egitarau hauek eraginkortasuna ere saritzen dutela azpimarratzeko da, inbertsio berrien ondorioak eta onurak gizarteari eta herritarrari zuzenean eta berehala hurbilduz aurreikusitako inbertsio plana arretaz garatu eta gauzatu duten udalek, erraztasunak izango baitituzte egitarau berrien deialdien diru laguntzak lortu ahal izateko. Horregatik, badira garrantzi nabarmena hartzen duten zenbait baldintza, horien artean Izartu II Egitarauaren diru laguntzak jasotzeko beharrezkoa dena, hau da, IZARTU egitarauaren lehenengo deialdian parte hartu duten udalek 2003ko abenduaren 31 baino lehen, gutxienez aurreikusita zuten inbertsioaren %30 exekutatua izatea.

Zenbait Udalerri egoera honetan aurkitzen dira, eta indarrean dagoen araudiak eskatzen duen %30ren exekuzio minimoa gauzatuta ez izateagatik, lehenengo deialdiari dagokion inbertsio guztia amaitzen saiatzen jarraitu beharko dute.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun Sailak aurkeztutako proiektuen azterketa eta kontraste lanari ekin dio, eta diru-laguntzen onuradunen zerrenda, aurtengo uztailaren 22a baino lehen kaleratu behar den Erabakian emango da ezagutzera.